

BIZI HITZA

Martxoa 2026

«Zuti zaitezte. Ez beldurtu» (Mt 17, 7).

Pedro, Santiago eta Juan mendi garai batera igotzen dira Jesusekin eta han Maisuaren aintza ikusten dute eta Seme bezala aitortzen duen Aitaren ahotsa entzun.

Esperientzia aparta, Jainkoarekin aurrez aurre, kreaturari Jainkoa bere distiran ezagutzeko aukera ematen diona. Beldurrak erori arazi egin ditu, baina Jesusek ukitu eta esan die:

«Zuti zaitezte. Ez beldurtu».

Zutitu aditza Ebanjelioak berpizkundea adierazteko erabili ohi duen bera da, eta «ez beldurtu» Berpiztuak emakumeei zuzentzen dizkien lehen hitzak, hilobi hutsaren ondoan agurtu ondoren (Mt 28, 10; ik. (28, 5). Beraz, Jesusen hitzak, indartsuak eta argiak, bizitza berri baterako gonbidapen tinkoa dira, ikasleentzat posible dena Haren eskuaren ukituari esker.

Gu ere, batzuetan, geure beldurrek harrapatuta geratzen gara, bizitzaren frogak atsekabetuta, irtenbiderik gabeko egoerek estututa. Ezin dugu testigantzaren bultzada berreskuratzeko gure indarrekin bakarrik kontatu, baizik eta Jainkoaren graziarekin, beti gure aurretik baitago.

«Nork ez ditu probak pasatzen? Hauek porrotaren, pobreziaren, depresioaren, zalantzaren, tentazioaren ... kutsua hartzen dute. [...] Inguratzen gaituen gizarte materialistak eta indibidualistak ere beldurra ematen du, gerrak, indarkeria, bidegabekeriak... Egoera horien aurrean zalantza ere sor daiteke: nora joan da Jainkoaren maitasuna? [...] Jesus benetan sartu da min bakoitzean, gure froga guztiak bere gain hartu ditu [...] Bera Maitasuna da, eta maitasunari dagokio beldur oro kanporatzea. Beldur batek erasotzen gaituen bakoitzean, oinaze batek jota gaudenean, hor ezkututzen den benetako errealitatea antzeman dezakegu: Jesus da, presente egiten dena [...] utz diezaiozun gure bizitzan sartzen. Eta gero, jarrai dezagun bizitzen Jainkoak gugandik nahi duena, hurkoa maitatzera abiatuz. Jesus beti Maitasuna dela ezagutuko dugu. Honela esan ahal izango diogu, bere ikasleek bezala: "Egiaz Jainkoaren Semea zara zu"» (Mt 14, 33)¹.

«Zuti zaitezte. Ez beldurtu».

Bere bizitzan Jainkoarekin topo egiteko esperientzia egin duenak liluratuta geratzen da bere presentziarekin, bere Hitzarekin ukituta eta sendatuta. Sarritan, kristau elkarte baten testigantzak laguntzen du Jainkoaren abentura honetan eta adorea ematen digu altxatzeko, norberagandik irten eta bideari berriro ekiteko Jesusekin eta senideekin.

¹ C. LUBICH, 2002ko abuztuko Bizi-Hitza

Siriako neska gazte baten testigantza jaso dugu: «Joan den urtearen amaieran nire herrialdeak oso egoera zaila bizi izan zuen, eta nire hiriak kaos eta beldur bolada bat jasan zuen. Oso kezkatuta nengoen familiagatik, lagunengatik eta baita ni neugatik ere.

Hainbeste zalantzaren erdian, Jainkoarenganako itxaropenari tinko eusten saiatu nintzen, hala eta guztiz ere indartsu izaten saiatuz. Gertaera horien aurretik, Ebanjelioa bizitzeko konpromisoa hartzen dudan gazteekin batera, familia behartsuei laguntzeko hainbat proiektu planifikatu genituen, elikagai-paketeen eta bestelako ekimenen bidez. Baina egoera horrek jarduera guztiak aldi baterako etetera behartu gintuen. Handik egun batzuetara berriro elkartzea lortu genuen: topaketa horretan indarra eta kemena aurkitu genituen bata bestearengan. Beldurrari etengabe aurre egitea erabaki genuen eta gure konfiantza Jesusengan jarriaz hasitako bideari berriro ekin. Partekatutako fedear beharrezkoak zeuden 40 familiei laguntzea lortu genuen.

Zailtasun horien erdian, Jainkoaren maitasunari eta gure batasunari esker desberdintasuna markatu genezakeela sentitu genuen.

«Zuti zaitezte. Ez beldurtu».

«Jainkoa aurkitzeko eta Haren ahotsa entzuteko Jesusekin mendira igo ondoren, Berarekin jaitsi gaitezke «[...] berriro lautadara itzultzeko, eta bertan senide asko aurkituko ditugu nekeak, gaixotasunak, injustizia, ezjakintasuna, pobrezia materiala eta espirituala jasaten dituztenak»².

«Kristau elkarte bezala ere sufritu dezakegu eta nahastu, baina Hitz honek elkarrekin mugitzera bultzatzen gaitu, guztiei "Jainkoarengan izan dugun esperientziaren fruituak emateko eta jasotako grazia elkarbanatzeko»³.

Letizia Magri eta Bizi Hitzaren taldea

² Ik. FRANCISCO, Angelus, 2014-3-16

³ *Ibid.*